



PERTXERO HARIZTATUA

Unai C, Martin P, Ander R eta Xabier P



ZERTARAKO BALIO DUTE?

- Erropa gordetzeko erabili dezakete
- Haria denez gero, eskuen trebetasuna hobetzen dute
- Kolore edo zenbakien bitartez beraien pertxeroa identifikatu beharko dute



ZERTAN ERAGINGO DIOTE?

- Txukuntasun eta orden gehiago
- Eskuen trebetasuna landu
- Gauzak ordenatzen ikasiko dute.
- Beraien pertxeroa koloreen bidez desberdinduko dute honek koloreak ikasten lagunduko du



NOLA IZANGO DA

Pertxero hariztatu bat egingo dugu, pertxero bakoitzak kolore bat izango du, horrela, bere zulo egokian sartuko dute. Pertxero honen bidez umeen psikomotrizitate fina landu nahi dugu.




MATERIALA

- Egur birziklatua
- Nylon zilindrikoak




TRESNAK ETA MAKINAK


- Lima mota desberdinak
- CNC tornoa
- Taladroa
- M12ko terraja
- 10,5eko broka
- Torlojua



PERTXAREN DISEINUA




EUSKARRIAREN DISEINUA




PERTXEROAREN PROZESUA

Gure proiektuaren pieza hau egiteko nylonezko pieza bat erabileko dugu, tornua erabiliko dugu gure programaren bidez (FagorCNC) forma emateko. Tornuari transmitituko diogu programa pieza hori lortzeko.



PERTXEROAREN EUSKARRIAREN PROZESUA

Egur birziklatua erabiliko dugu pertxeroaren euskarria egiteko, euskarri hori egiteko zuloak taladroan egingo ditugu eta ondoren terraja erabiliz zuloa hariztatua egingo dugu. Zuloak amaitutzat ematen ditugunean, bakoitzaren pertxeroa identifikatzeko gometsa bat itsasiko dugu zuloaren aldamenean.



- TAULA:




Ideiak	Zer behar erantzuten dute	Eraginkorra	Ekoizteko erraza					Guztira
Oinetakoen forma irudikatu	Erakusten die ezker eskubi identifikatzen	Bai, ezker eskubi identifikatzen	Erraza	7	8	7	9	31
Lokarriak lotzeko praktika	Eskuetako trebetasuna praktikatzen	Bai, eskuen trebetasuna hobetetzen dute	Erraza	6	7	8	7	28
Pertxero hariztatua	Arropa gordetzeko ohitura ematen diegu	Bai, eskuen trebetasuna hobetzen dute	Erraza, baino denbora behar da	9	7	8	8	32
Zapateroak	Pertxeroaren antzekoa baino zapatilarekin	Bai	Erraza	6	6	6	4	22
Origami	Kreatibitatea eta eskuen trebetasuna hobetu	Bai, produktibitatea hobetzeko	Erraza	8	7	8	8	31



CANVAS

BALORAZIO PROPOSAMENA

IDEIAK	ARRAZOIAK
Txukuntasuna	Arropa txukun lagatzeko.
Eraginkortasuna	Txukuntasunaren ohitura hartzen dute.
Erosotasuna	Iseki-toki bat izateko.
Kualitatibotasuna	Ordenatuta ikusten delako.
Kuantitatibotasuna	Material birziklatuekin eginda dago, orduan, materialen prezioa merkea da.



SEGMENTAZIOA:



Gure merkatua nitxoa da, gure bezeroen taldea txikia delako.

Ezaugarriei begira, gure bezeroei alde guztietatik onurak ekartzen dizkiete gure produktuak. Esate baterako, gehien bat koordinazioan eta txukuntasunean laguntzen du.





ELKARTEAK

Leroy Merlin enpresarekin adostasun batera iritsi gara. Beraiek material ezberdin asko lantzen dituztenez asko sobratzen zaie. Egurra eta nylona erraztuko digute guk tailerrean produzitu ahal izateko.



IRABAZI ITURRIAK

Proiektu honetarako diru-sarrerak lortzeko hainbat aukera ditugu: bankuari kreditu bat eskatzea, hainbat enpresa konbentzitzen saiatzea, laguntzak eskatzea, etab.




KANALAK



GUK AUKERATUTAKO KANALA

Elkartutako kanalek

aukera sorta zabala hartzen dute (handizkako edo txikizkako banaketa, esaterako), eta irabazi-marjina txikiagoak eskaintzen dituzten arren. Onurei dagokienez, ordea, gure kanal propioak erabiltzean baino bezero kopuru askoz handiagoarengana iristea ahalbidetzen digute. Gainera, aipatutako kanal elkartuen indar komertzialari ere etekina atera ahal izango diogu.



HARREMANAK



Enpresa honetan, gure bezzeroekiko harremana kooperatiba bat izango litzateke, gure produktuekin laguntzen diegu beraien arazoekin.



BALIABIDEAK

Leroy Merlinen aldetik bezeroekin harremandu eta bezeroekin kontaktua galdu gabe produktua saltzen dute eta produktuaren truke diru sarrerak lortzen ditu Leroy Merlinek eta lortzen duten diru sarreraren %70 guretzat izango litzateke eta beste %30 Leroy Merlinerentzat



JARDUERAK

Guk leroy merlynek emandako materialarekin gure pertxero hariztatua produzituko genuke, pertxero horiek berriz leroy merlineri itzuli eta beraiek saltzea egingo genuke.



KOSTUAK

Proiektu honekin kostu aldetik gastu gutxi edukiko ditugu, bertan ditugun gauzeekin lan egin dezakegulako.

- Materiala → Egur eta nylon birziklatuak behar ditugu eta aliatuta gaudenez Leroy Merlinen aldetik ez dugu gasturik egiten
- Makina eta erremintak → Guk dauzkagun makinak eta erremintekin ez dugu ezer gastatu behar beraz gastua murrizten dugu
- Elektrizitatea → Makinak martxan jarri ahal izateko elektrizitatea beharko genuke, orduan diru kopuru bat gastatu beharko genuke gure produktua produzitu ahal izateko



THE END